

## **ENPRESEN GONBIDAPENA** **Baldintza agiri sinplifikatua**

**ZERBITZUA:** LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUA: Demaren komunikazio korporatiboaren kudeaketa

**PROZEDURA:** Lizitazioa negoziatuz

**GEHIENEN PREZIOA:** 45.000 euro

**GEHIENEN IRAUPENA:** 2020ko iraila

### **1. DEMARi BURUZ**

**Bizkaiko Foru Aldundiaren** Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna sustatzeko sailaren **Enplegu eta Ekintzaitza Foru Agentzia** da **DEMA**.

Lana bilatzen ari direnei, lan egoera hobetu nahi dutenei eta enpresa bat sortu nahi dutenei zuzendutako programak sustatzen eta kudeatzen ditu.

Gaur egun, honako hauek dira DEMAREN jardueraren arloak:

- Laneratzean laguntzea
- Kultura ekintzailea zabaltzea
- Enpresak sortzea
- Enpresak sendotzea

Juridikoki, DEMA irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, eta Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistroan erregistratuta dago 1989-09-15etik, B/1661/89 zenbakipean eta **ASOCIACIÓN DE APOYO AL DESARROLLO EMPRESARIAL DEMA EMPRESA GARAPENA** izen sozialarekin. Egoitza soziala: Barakaldo Elkartegia, Fanderia kalea, 2 - Barakaldo (Bizkaia); eta IFK: G48408405. Webgunea: [www.dema.eus](http://www.dema.eus)

### **2. KONTRATUAREN XEDEA**

Ezinbestekoa da DEMAREN zerbitzu publikoen hartzailerekin erakundea ezagutzea eta onartzea, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren mendeko den Enplegu eta Ekintzaitza Foru Agentzia zer den ulertzea; horretarako, **komunikazioko estrategia** bat behar da, eguneroko komunikazioa ez ezik, **erakundearen branding-aren ezagutza estrategikoa** ere xede izango dituen.

Hori lortzeko, **Foru Agentziak Bizkaian egiten dituen jardun nagusiak online nahiz offline bitartekoen bidez ezagutaraziko** direla bermatuko duen kudeaketa lana behar da.

**Online bitartekoen** bidez estali eta ezagutarazi beharko dira, alde batetik, DEMAK sortzen dituen eguneroko berriak eta, bestetik, jarduerarekin eta sektorearekin lotura duten eta estrategiarekin bat datozen informazioak, baita DEMAK presentzia fisikoa edo birtuala duen ekitaldiak ere.

Gainera, urteko une jakin batzuetan, programen deialdiak zabaltzen direnean, **offline bitartekoen** bidez indartzea komeni da. Online eta offline komunikazioaren estiloa eta irizpideak bateratzea funtsezkoa da; hortaz, enpresa berak egingo ditu, batera.

2016. urtearen amaieratik, Bizkaiko Foru Aldundiaren mendeko gainerako enpresa publikoek egiten duten moduan, DEMAk ere bere jardueraren ondorio diren eduki eta ekintzak eta ekitaldiak sare sozialen bitartez jakinarazten ditu, betiere Foru Aldundiak berariaz prestatutako kontuen bitartez: @Bizkaia kontu nagusia eta @BizkaiaGazteak, @BizkaiaEmprende, @BizkaiaSocial, @BizkaiaEmpresa eta @BizkaiaKultura. Kontu horiek hainbat sare sozialetan funtzionatzen dute: Twitter, Facebook eta Google+ sareetan, hain zuzen. DEMAk LinkedIn sarean ere egiten ditu jakinarazpenak, kontu independente baten bitartez: DEMA Enpresa Garapena.

DEMAren sare sozial propioak desagertu ondoko egoera berri honek erakundearen komunikazio estrategia errotik aldatzea eragin du, Foru Aldundiaren sare sozial berrietara egokitzeko, eta DEMAren webgune/blogari eta modu autonomoan kudeatzen duen LinkedIn sare profesionalari garrantzi handiagoa emateko.

Horregatik, **enpresa bat kontratatu** behar da, **Community Management-eko zerbitzuez eta online komunikazioko, mantentze lanetako eta kudeaketako zerbitzu espezializatuez arduradadin. Era berean, offline edukien diseinu estrategikoaz ere arduratu beharko du, behar denean.** Proiektu horrek orain arte egindako lanetan aurrera egin beharko du, enpleguaren, ekintzailtzaren eta enpresaren munduan ez ezik, oro har, herritarren artean ere ezaguna den marka sendoa eratzeko; erreferente bat online edukiaren sorkuntzan, partaidetza sozialean eta sare sozialetako nabarmentasunean. Kontratututako enpresak horien guztien funtzionamendua perfektua izateaz eta etengabe eguneratzeaz arduratu beharko luke, baita berrikuntzako eta hazkunderako tresnez ere, betiere lortu nahi diren helburuak betetzearren.

Azken urteotako jardueren memoria eskainiko die Demak parte hartzen duten enpresei, egin beharreko lan kopurua balioetsi eta dimentsionatu ahal izan dezaten.

**Hortaz, enpresa esleipendunari honako ZERBITZU ZEHATZ hauek eskatuko zaizkio:**

**1.- Online edukiak sortzea eta kudeatzea** DEMArekin koordinatuta. (@Bizkaia-ren sare sozialak; DEMAren web/bloga; DEMAren LinkedIn sarea eta etorkizunean erabaki litezkeen sare/site-ak).

Egin beharreko lanen bolumena aldatu egingo da DEMAk une bakoitzean sortutako jarduera/programa/ekitaldien arabera, eta enpresa esleipendunak horien guztien berri eman beharko du, albisteak sortuta, ekitaldira bertaratu beharko du DEMAk beharrezko iritziz gero, eta online ezagutarazi. Gainera, premia bereziak sortuz gero, DEMAk mandatu bereziak ere eskatu ahal izango dizkio enpresa esleipendunari une zehatzetan, betiere kontratu honen xedearekin lotura izanik.

**2.- Sare sozialen kudeaketaren aholkularitza eta auditoretza (Bizkaiko Foru Aldundiarekin koordinatuta Twitter, Facebook eta Google+ saretarako; eta modu autonomoan Demaren LinkedIn sarearen eta web/blogaren kasuan).**

**3.- Online promozio ekintzak, mailing-ak eta sare sozialetako publizitatea kudeatzea DEMArako diseinu grafikoaz arduratzen direnekin koordinatuta; emaitzak neurtzea eta monitorizazioko txostenak.**

**4.- Online eta offline idatzitako komunikabideetarako edukiak sortzea eta kudeatzea, Demarekin eta diseinu grafikoaz arduratzen den enpresarekin koordinatuta, iragarkien kasuan.** Komunikazioarekin lotutako lan handiena baliabide digitalen bitartez (Demaren sare sozialak, webgunea eta bloga) zabaltzen den arren, programen deialdi berriak hasten diren uneetan indartzea behar izaten da, idatzitako komunikabideetan. Kasu horietan, argitaratu beharreko eduki eta artikulua idazteko eska diezaioke DEMAk enpresa esleipendunari, online eta offline komunikazioaren estiloa bateratze aldera.

## **KONTUAN IZAN BEHARREKO BESTE HAINBAT ALDERDI**

- Ohiko komunikazioa Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egin beharko da: euskaraz eta gaztelaniaz.
- Enpresak DEMaren kudeaketari, zabalkundeari eta posizionamenduari buruzko bilakaeraren/balantzearen txostenak aurkeztu beharko ditu, hiru hilean behin.
- Bitarteko digitaletan argitaratzen diren eduki guztiak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen (otsailaren 18ko 4/2005) 18.4 eta 3.6 artikuluei atxiki beharko zaizkie. Era berean, Bizkaiko irudiaren parte izaki, "emakumeen eta gizonen aniztasuna errespetatzen duen eta horien berezitasunak integratzen dituen berdintasuna" kontzeptua sustatu behar du.

## **3. IRAUPENA: GAUZATZEKO EPEA**

Gauzatze gehieneko epea: **2020ko irailaren 30era arte.**

Edo bestela, hurrengo klausularen arabera, faktura daitekeen gehieneko zenbatekoa agortzen den arte.

## **4. KONTRATUAREN PREZIOA ETA ORDAINKETAK**

**Gehieneko prezioa:** faktura daitekeen gehieneko zenbateko bat ezarri da zerbitzuak gauzatze aldi osorako, hau da, 45.000 € (BEZik gabe).

**Proposamenean adierazi beharreko prezioa:** proposamenean, lanak gauzatzea konpentsatuko duen orduko prezioa adierazi beharko da.

**Ordaintzeko modua:** hilean behin fakturatuko da sartutako lan orduei dagokien zenbatekoa, eta eranskin batean lan egindako orduak eta kontzeptuak banakatu beharko dira.

Ordainketa gehenez ere hogeita hamar (30) eguneko epean egingo da, faktura jasotzen denetik kontaktzen hasita.

## **5. PROPOSAMENAK BALIOESTEA ETA KONTRATUA ESLEITZEA**

Proposamenak balioesteko garaian, honako irizpide hauei jarraituko zaie:

### **1. Zerbitzuaren kalitatea, aurkeztutako memoriaren arabera.**

- Prestasuna. Laneko ordutegia eta DEMari arreta emateko ordutegia balioetsiko dira, baita enpresaren prestasun maila eta arintasuna ere, lanak egiteko garaian eta erantzuteko denboretan.

- Laneko planaren egokitasuna eta kalitatea. Laneko planaren kalitatea, koherentzia eta kontratuaren premietara egokitzen ote den balioetsiko dira.
- Sare sozialak monitorizatzeko eta ebaluatzeko eta neurtzeko tresnen sorta.
- Social Media dinamizatzeko ekintzak: DEMAren ekintzak sustatze aldera, eduki egokiak eta erakargarriak sortzeko proposatutako ekintzak balioetsiko dira.
- Lizitatzailerek eskaintako hobekuntzak. Eskatutakoak ez diren bestelako ekarpenak balioetsiko dira, betiere berritzaileak badira eta proposamen teknikoak hobetzen badute.

## **2.-Orduko prezioa**

## **3.-Kaudimen teknikoak**

DEMAk prozedura esleitu gabe utz dezake baldin eta, bere ustez, proposamenez ez badituzte zerbitzuaren eskakizunak betetzen. Kasu batean edo bestean, parte hartzen duten enpresek ez dute inolako kalte ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

DEMAren irizpideei hobekien atxikitzen zaien proposamenari esleitu ahal izango dio kontratua DEMAK, edo kontratuaren xedean adierazitako premiak hobekien ebatzi eta egokiena denari; horretarako, proposamen teknikoaren kalitatea bereziki balioetsiko du, egiaztatzen duen kaudimenarekin batera, baina ez du zertan proposamen merkeena izan. Dena den, irizpide ekonomikoaren barruan, eskaintzen diren zerbitzuen kalitaterako ondoriozta daitekeen balioari hobekien atxikitzen zaizkion eskaintzak hautatzera joko du.

## **6. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

1. **Enpresaren kaudimen teknikoak:** erakunde eta enpresetan antzeko zerbitzuak betetzen izandako esperientzia.
2. **Proposamen teknikoak:** Sare sozialak kudeatzeko ekintzen eta proposameneen azalpen memoria, honako eskema honi jarraikiz:
  - Prestasuna
  - Laneko plana
  - Tresnak
  - Social Media-ren dinamizazioa
  - Hobekuntzak

Astean egin beharreko gutxieneko lanak eta txertatzeak zeintzuk diren adieraziko da, betiere DEMAren online komunikazioko agindutako zerbitzuak betetzeko gutxieneko zerbitzuak bermatze aldera.

Halaber, astean sartu beharreko gutxieneko ordu kopurua ere adieraziko da, betiere goian adierazitako gutxieneko zerbitzuak betetze aldera.

- 3 **Proposamen ekonomikoak:** lanak gauzatzeko denbora konpentsatuko duen orduko prezioa adierazi behar da, hori izango baita kontraprestazioa jasotzeko modu bakarra, betiere kontuan izanik kontratatutako aldiaren faktura daitekeen gehieneko zenbatekoa 4. puntuari adierazitakoa izango dela.
- 4 **Erantzukizunpeko adierazpena;** horren bitartez, kontratatutako eskatzen diren baldintzak betetzen dituela adierazi behar du lizitatzailereak, baita hori egiaztatzen duen dokumentazioa baduela ere, eta kontratazio organoak eskatzen dionean dokumentazio hori aurkezteko konpromisoa hartzen du.

## **7. AURKEZTEKO PROZEDURA ETA EPEAK**

DEMAk hiru enpresari, gutxienez, bidaliko die proposamena aurkezteko gonbidapena, enpresa horiek egokitzat jotzen dituelako haien ibilbidea eta esperientzia dela eta.

1) Enpresen ordezkariekin banaka hitz egingo du, kontratuaren xedea eta eman beharreko zerbitzuak xehetasun handiagoz azaltzeko.

2) Enpresek idatzita bidaliko dute euren proposamena, emailaz, DEMARA, beranduenez 2019ko martxoaren 2ko 10:00ak baino lehen. Eranskin gisa, "Aurkeztu beharreko dokumentazioa" klausulan adierazitako 4 dokumentuak txertatu behar dira.

Emaila helbide honetara bidali behar da: [beatriz.m@dema.eus](mailto:beatriz.m@dema.eus)

Mezuaren gaia: KOMUNIKAZIO KORPORATIBOAREN KONTRATAZIOA

3) Azken hautaketa albait azkarren egingo du DEMA, eta 2019ko martxoan kontratua ebatzi, gonbidatutako hiru enpresei horren berri eman eta enpresa esleipendunarekin kontratua sinatzeko konpromisoa hartzen du.